Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

163

342/2010 DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SA (SPRI) sozietateari Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia, SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua sortzeari buruzko ekainaren 10eko 5/1981 Legearen 4.2 artikuluan agindutakoaren arabera, bereziki interesatzen zaizkion enpresen kapital sozialean parte har dezake sozietateak. Horretarako, ordea, Eusko Jaurlaritzak baimena eman beharko dio aldez aurretik, eta kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu.

Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia, SA sozietatearen helburuak honako hauek dira: inbertsio eta ekimen industriala sustatu eta bultzatzea, industria-pabiloien konplexu bat eraikiaz, eta horiek, errentamendu-formulen, jabetza-transferentzien edo prekarioko lagapenaren bidez kudeatuaz, lokalen eta zerbitzuen promozioa eta komertzializazioa eginez, eta haietan instalatu nahi diren enpresak gonbidatu eta hautatuaz; enpresak horiek teknologia aurreratuko jarduerak burutu beharko dituzte, bereziki elektronikaren edo informatikaren arloan (hardware eta software), guzti hori produktu, prozesu eta zerbitzuei aplikatuaz, eta halako instalazioetan obligaziozko diren zerbitzuen ustiapen eta kudeaketa iraunkorrarekin aurrera eginez, zerbitzuok honakoak lirateke: testuen prozesaketa, telexa, ordenagailu bidez marrazketa, datu-baseekiko konexioa, ordenagailuen alokairua, bulegoetako makinaria, batzar-aretoak eta telefono bidezko arreta pertsonalizatua.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, SPRI, SA sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2010eko urriaren 8an egindako bileran, Eusko Jaurlaritzara jotzea erabaki zuen, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SA sozietateari, 5/1981 Legearen 4. artikuluko 2. puntuan jasotakoaren arabera, baimena eman diezaion, Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia, SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko, zehazki, milioi bat seiehun eta berrogeita hamazortzi mila eta laurehun eurorekin parte hartzeko (1.658.400). Hori, % 64,07ko partaidetza da, bi miloi bostehun eta laurogeita zortzi mila eta laurehun eurokoa izango baita (2.588.400).

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

163

DECRETO 342/2010, de 21 de diciembre, por el que se autoriza a la Sociedad Para La Promoción y Reconversión Industrial, SPRI, S.A. la toma de participación en la ampliación de capital de la Sociedad Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.

El artículo 4.2 de la Ley 5/1981, de 10 de junio, sobre Creación de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, dispone que la sociedad podrá participar en el capital social de empresas de particular interés, previa autorización del Gobierno Vasco y en las condiciones que en cada caso se determinen.

El objeto social de la sociedad Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia, S.A. es estimular y promover la iniciativa y la inversión industrial mediante la construcción de un complejo de pabellones industriales, gestionando su explotación mediante fórmulas de arriendo, transferencia de propiedad o cualesquiera, incluso la cesión en precario, realizando la promoción y comercialización de locales y servicios, la selección e invitación a empresas candidatas a implantarse en él, empresas que realizarán actividades en materia de tecnología avanzada, estimulando, en particular, el campo de la electrónica e informática (hardware y software), aplicada a productos, procesos y servicios, prosiguiendo con la gestión permanente y explotación de los servicios obligados en este tipo de instalaciones, proceso de textos, télex, dibujo de ordenador, conexión con bases de datos, alquiler de ordenador, de maquinaria de oficinas, salas de reuniones y atención telefónica personalizada.

El Consejo de Administración de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, SPRI, S.A. acordó en su reunión de 8 de octubre de 2010 dirigirse al Gobierno Vasco para que, en virtud del artículo 4, punto 2 de la Ley 5/1981, conceda autorización a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A., para participar en la ampliación de capital de la Sociedad Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia, S.A. con un millón seiscientos cincuenta y ocho mil cuatrocientos (1.658.400) euros, equivalente a una participación del 64,07% de la misma, que tendrá un importe total de dos millones quinientos ochenta y ocho mil cuatrocientos (2.588.400) euros.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko abenduaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Baimena ematea Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SA Sozietateari, Sociedad Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia SA sozietatearen kapital-gehikuntzan, miloi bat seiehun eta berrogeita hamazortzi mila eta laurehun eurorekin (1.658.400) parte hartzeko. Zenbateko hori kapital-gehikuntzaren % 64,07 izango da, guztira bi miloi bostehun eta laurogeita zortzi mila eta laurehun izango baita (2.588.400). Halaber, baimena ematen zaio, partaidetza egiterakoan ordainketaren % 25 gauzatzeko.

Gainerako zenbatekoa sozietatearen diruzaintzaren beharren arabera –behar bezala dokumentatuta– ordainduko da. Gehikuntzaren ostean, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SA (SPRI SA) sozietateak Sociedad Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia SA sozietatean izango duen partaidetza % 64,07koa izango da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 21ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 21 de diciembre de 2010,

DISPONGO:

Artículo único.– Se autoriza a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI, S.A.) la toma de participación en la ampliación de capital de la Sociedad Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia, S.A. con un millón seiscientos cincuenta y ocho mil cuatrocientos (1.658.400) euros, equivalente a una participación del 64,07% de la misma, que tendrá un importe total de dos millones quinientos ochenta y ocho mil cuatrocientos (2.588.400) euros, así como al desembolso del 25% en el momento de la suscripción.

El desembolso del importe restante se realizará en base a las necesidades de tesorería de la sociedad debidamente documentadas. Tras esta ampliación, la participación de la Sociedad para la Promoción Industrial, S.A. (SPRI, S.A.) en la Sociedad Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkartegia, S.A. será del 64,07%.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de diciembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.